



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ARRISKUAK KUDEATZEA

Sarrera

Elikagaien Segurtasunaren arloko prebentzio-politikak arriskuen azterketan oinarritu behar du; izan ere, arriskuen azterketa-prozesu egituratua da, arriskuak ulertu eta, beharrezkoa bada, murrizteko. Arriskuen azterketak hiru fase ditu: lehenengo fasea zientzia-aholkularitza da, eta bigarrena arriskuak kudeatzea. Arriskuak kudeatzeko fasean gizartearen xede zabalek bat egiten dute zientziarekin, eta bertan prestatu eta hautatzen dira arriskuei heltzeko estrategiak. Arriskuak jakinaraztea da hirugarren fasea, eta aurreko biak biltzen ditu.

1

Definizioa

Codex Alimentarius-aren arabera: "arauen aukera ezberdinen haztapen-prozesua da, kontuan hartuta arriskuen balioespenaren emaitzak eta, beharrezkoa balitz, kontrol-neurri egokien (arazko neurriak barne) hautaketa eta aplikazioa".

Arriskuak kudeatzea

Arriskuen kudeaketak bere baitan hartzen ditu **arriskua murriztu eta osasun publikoa babesteko**, hainbat taldek (besteak beste, erakunde arautzaile ofizialak, arauak osatzeko nazioarteko erakundeak, sektore pribatuko enpresak, gobernuz kanpoko erakundeak eta kontsumitzaile edo herritarrak) abiarazitako **arauak, neurriak eta hautaketak**.

Arriskua ekidin edo arintzea ez da halaberrez arriskuaren kudeaketaren helburu bakarra. Arriskuen kudeaketari honako helburu hauek lortzeko ere ekiten zaio: giza eskubideak bermatu, bidegabekeriak zuzendu edo elikagaien kaltegabetasunarekin zuzenean loturarik ez duten emaitzak (ingurumena, aukera ekonomikoak edo etorkizuneko belaunaldien interesak babestea) eskuratzeko.

Arriskuen kudeaketaren helburuan eta arriskuen kudeaketen hautaketa arriskuen zientzia-balioespenean oinarritzeko moduan eragina du optimizazioaren eta baimen informatuaren arteko tentsioak.

Arriskuen kudeaketak maiz bilatzen du oreka zientzia-ikuspegitik balioetsitako probabilitatearen eta elikagaien kaltegabetasunean eragin dezakeen kaltearen (beste kostu batzuekin edo ondorio kaltegarri batzuekin batera), eta elikagaien kaltegabetasunari begira, arriskuekiko esposizioa murriztuko duten jardueren aurreikusitako onuren artean. Modu sinplean esan daiteke arriskuak onargarriak izango direla baldin eta onurak arriskua baino handiagoak badira; nahiz eta,

praktikan, optimizazioak berekin duen konparazio konplexuak egitea egon daitezkeen aukeren kostuen eta aurreikusitako onuren artean.

Nolanahi ere, baimen informatuaren teoriak zehazten du arriskuen zientzia balioespena ez dela erabiltzen erabakitzeke zein den jarduteko modurik egokiena elikagaien kaltegabetsunari begira, arriskua murriztean edo onartzean. Arriskuen balioespena erabiltzen da oinarria emateko arrisku hori jasango duten pertsonak gaitzeko jardueri. Jarduera horiek, gutxienez, beren baitan hartuko dituzte: arriskuan dauden herritarrak identifikatzea, arriskua jasango dutenei inguruabarren berri ematea eta horiei aukera ematea baimen informatua eskatu zaion inguruabarra baztertu (edo ekidin) ahal izateko. Egoera horretan, pertsoneri edo taldeei arriskuak jasateko aukera ematea da arriskua kudeatzeko aukerarik egokiena (adibidez, informazio-etiketa baten bidez).

Estrategiak eta taktikak

- **Estrategia:** Arrisku bat identifikatu eta balioetsi ostean, berari aurre egiteko aukeratutako estrategiak hainbat auzi etiko planteatzen ditu, ikuspegi nagusi orokorra gorabehera. Arriskua kudeatzeko estrategia irudikatzean, arriskuen kudeatzaileak honako alderi hauek guztiak izan beharko ditu aintzat: Zein da babes-maila egokia edo baimenaren seinale nahikoa? Zein da arriskuen

kudeaketarako estrategiaren aukeraren kostua? Herritarrak kalteberak al dira bereziki, eta, hala bada, estrategia horiei babes handiagoa eskaintzera bideratu behar da? Estrategia horiek auzitegien aurrean aurkaratuz gero, izango al dute babesik? Zein da errakuntza-tarte onargarria? Nola ekidingo dira merkaturatzeari jartzen zaizkion eta mugazko zergak ez diren oztopoak?

- **Taktika:** Behin estrategia orokorra hartuta, zenbait alderdi taktiko zehatz sortuko dira ezinbestean. Adibidez, etiketa aukeratu ahal izango da arriskuekiko esposizioa murrizteko bide gisa (optimizazioarekin bateragarria den xedea) edo informazio eta ihesaldi mekanismo gisa (baimen informatuarekin bateragarriagoa den xedea). Nolanahi ere, bi kasuetan sorraraz ditzakete beste galdera etiko batzuk etiketaren diseinuak eta edukiak, batik bat, eraginkortasunari, fidagarritasunari eta derrigorrezko aplikazioari dagokienez. Taktika-arloko auziek prozedurak eta ekipo teknikoa hautatzea dakarte, arriskuaren azterketatik eratorritako arauekin adostasun-maila neurtzeko. Ekipoa hautatzeak ondorio ekonomikoak ditu, eta honelako auziak planteatzen ditu: nork erabaki behar duen, arau zehatz bat betetzeko beste baliabiderik ba ote dagoen (bai eta kostu txikikoak ere), eta beste kostu batzuk ere. Adibidez, pHa oso diru gutxirekin neur daiteke saioak egiteko eskuko kutxa baten bidez; baina, garestia era izan daiteke goi-mailako ekipoa erabiliz gero. Hori beharrezkoa bada arauak betetzeko, ekipoa eskuratu ezin duten norbanakoek edo enpresek eten egin

beharko dituzte euren jarduketak elikagaien kaltegabatasunaren izenean.

Auzi etikoak arriskuen kudeaketan

Arriskuen kudeaketak, halaber, aintzat hartu behar ditu ekitatearen inguruan sortzen diren auzi etikoak. Ekitate-arazoak ez dagozkio soilik elikagaien kaltegabatasunari, baina arauak ematen dituztenek ezin dituzte bazter utzi auzi horiek. Ekitate-auziek honako hauek hartzen dituzte euren baitan:

- Boterearen oreka-arriskuen azteketan interesa dutenen artean, eta arrisku zehatz baten azterketan talde bakoitzari zer interesatzen zaion. Bidezko aldeetan honako hauek egoten dira, besteak beste: hainbat diziplinatako kideak, herrialde ezberdinetako ordezkariak eta ofizialak ez diren sektore eta enpresak.
- Garatzen ari diren herrialdeen parte-hartzea (edo parte-hartze eza) arriskuen kudeaketako erabakietan nazioarteko mailan.
- Kostuak eta onurak nola banatu herrialdeen artean, herrialdean bertan, genero/adin/diru-sarrera/etnia/eta abarren artean. Eta,
- gaur egungo erabakiek zein ondorio izango dituzten etorkizuneko belaunaldietan. Zaindu egin behako da belaunaldi horiek mundu hobea eta seguruagoa izatea,

eta ez daitezela ibili behar geure ekintzen ondorio negatiboak arintzen.

Ekitatea erabakigarria da elikagaien arloko laguntzarekin eta zuzenbidearekin lotutako arazo etikoak (txosten honetan, aurrerago aztertutakoak) aintzat hartzean. Elikagaien kaltegabetasunari buruzko arauetan ekitate-elementu garrantzitsua da arriskuen azterketatik ondorioztatutako arauen balizko eragina, alegia, merkaturatzeari jar dakioken eta mugazko zerga ez den oztopoa. Elikagaien kaltegabetasunari buruzko zenbait arauen ondorioz, praktikan, munduko merkatuetarako sarbidea ukatu ahal zaie elikagai horiei eta zehazki herrialde pobreetako edo ezagutza tekniko espezializatua ez duten eskualdeetako elikagaiei. Elikagaien kaltegabetasunari buruzko arau baten eragina sarbidea ukatzea bada, argi erakutsi beharko da, arriskuen balioespen egokiaren bidez, ekitatiboak ez diren arau horiek beharrezkoak direla.